



Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua

Ohiko galderak (herritarrak)

Hizkuntza Eskola Ofizialeko A2 maila ziurtatuta daukat baina erregistroan ez da agertzen, zer dela eta?

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuak, [Baliokidetzak Dekretuan \(pdf, 300Kb\)](#) agertzen diren euskara mailak baino ez ditu jasotzen. Bestelakoak, Hizkuntza Eskola Ofizialeko A1 eta A2 maila edota Euskaltegiak "urratsak" adibidez, ez dira bertan jasotzen.

Nire izen-abizenak ez datoz bat ziurtagiriaren orri-buruan eta taulan, zergatik?

Ziurtagiriaren orri-buruko datuak identifikatzeko erabili duzun txartel elektronikotik jasotzen ditu aplikazioak eta taulakoak jatorrizko erregistrotik (HAEE; HABE; Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila). Litekeena da bien artean desberdintasunak egotea, grafian aldaketaren bat egin duzulako adibidez. Datuak eguneratu nahi badituzu, jatorrizko erregistroa jo beharko duzu.